

Teknologia berriei buruzko mintegia

*Gotzon Egia, Elena García, Mila Garmendia, Maite Imaz,
Karlos del Olmo, Iñigo Roque, Josu Zabaleta*

AURKEZPENA

Iazko udan, EIZIEren Zuzendaritza Batzordeak hala eskaturik, zenbait elkartekidek mintegi antzeko bat antolatu genuen, teknologia berrien inguruan gaur egun diren kezka eta egitasmoak jasotzeko asmotan.

Askotariko iritziak biltzea ez da lantegi erraza, hainbat gutxiago iritzi-emaileetan halako aniztasuna dagoenean. Beraz, txostenean, agertutako aburu nagusiak jasotzen ahalegindu gara, burubide koherente bat eskaini nahirik. Beste batzuetan, ordea, aditu bakarrak adierazitakoak aldatu ditugu txostenera, erabat jakingarriak direlakoan.

Azkenik, esan beharra dago txosten hau laburpen gisako bat baizik ez dela eta, beharbada, aipatu gabeak aipatuak baino gehiago izango direla. Hala ere, testuak funtsezko zenbait ildo erakusten ditu, bidea urratzen jarrai dezagun etorkizun oparoko eremu honetan.

GALDETEGIA

Memoriak

1. Zer itzulpen-memoria ezagutzen duzue? Zein erabiltzen?

Oro har, Trados eta Wordfast dira erabilienak. Dena dela, aipatzekoa da bat baino gehiago Trados utzita Wordfastera pasatu dela, eskuarki Classic bertsiora, baina bada Pro eta Anywhere bertsioak erabiltzen dituenik ere (Pro, gainera, batzuetan zerbitzariaren bidez). Bada, orobat, Trados erabiltzen duenik soilik html formatuko eta beste formatu batzuetako (Quark Xpress, Indesign...) testuak itzultzeko.

Gainerako memoriak, eskuarki, probak egiteko erabili izan dituzte; gehienbat, OmegaT eta DéjàVu.

2. Zer eragin izan behar lukete itzulpen-memoriek tarifetan?

Denetarikoa iritziak diren arren, nagusi da tarifak ez egokitzearen aldeko jarrera. Tarifak egokitzearen alde, aipatzen da logikoa dela kostua merkatzea baina, gisa berean, bezeroaren esku dagoela aukera hori,

markatuta bidal baititzake itzuli behar ez diren unitateak, aurretik itzuliak daudelako.

Hala eta guztiz ere, tarifak egokitzearen alde egon edo ez, aditu guztiek nabarmentzen dute, memoriak itzultze-lana arindu arren, orrazketa eta zuzenketa zorrotzagoak behar izaten dituztela testuek, koherentziari eusteko (jatorri askotako unitateak) edo terminologia eguneratzeko (hizkuntza bizkor mudatzen ari da). Gainera, memoriaren abantaila nagusia ez da lehendik egin dagoen lanari atarramentua ateratzea, ezpada norberaren lanari koherentzia ematea, batez ere sorkuntza-testuetan.

Ohargarria da IZOn % 50eko beherapena aplikatzen dela % 80tik gorako antzekotasuna denean. Hala ere, oro har, ez da hala beste inon jokatzen.

3. Nola jokatu behar lukete erakunde publikoek beren memoriekin? Libre eskaini behar lituzkete? Itzulpen-hornitzaileei bakarrik eskaini behar lizkiekete? Ba al duzue memoria librean esperientzien berri (IVAP, GFA, BFA)?

Uste zabaldua da diru publikoz eginiko lanak, ez bakarrik itzulpenak, herritarren esku jarri behar liratekeela. Hala ere, datu konfidentzialak direla eta, bistan da ezin direla bere horretan eskaini memoria horiek, non eta aurrez ez diren isilean gorde beharreko xehetasun horiek ezabatzen.

Zenbait datu-base aipatu dira: Open Data Euskadikoa, Bizimena, Gipuzkoako eta Bizkaiko Foru Aldundienak, Jaurlaritzarena (laster abian jartzeko omen dena)... Hala ere, memoria multzo horiek guztiak bakarrera ekartzeko premia nabarmena da.

Horrez gainera, azpimarratu da itzulpen-memoriek hizkuntzan murgiltzeko aukera ematen dutela, gutxi irakurriak diren testuak eskura jartzen dituzten aldetik. Azken batean, errazago da euskarazko itzulpen zahar bat hobetzea, jatorrizkoarekin esku hutsik ihardukitzea baino: memoriak hizkuntza-gaitasun pasiboa aktibo bihurtzeko era ematen baitute.

4. Zer hutsune ditugu memoriekin lan egitean, tresneriari (OpenOffice, Mac...) nahiz erabileremuari (literatura...) dagokienez?

Denek aitortzen dute Windows eta Office erabiliz gero ez dagoela hutsune handirik; bai, ordea, beste ingurune batean jardunez gero. Horietarako ere (Ubuntu, MacOs) badira zenbait tresna, baina informatika pixka bat jakin behar da horiek implementatzeko. OpenOffice eta LibreOffice paketeetarako ez dago tresna integraturik (Anaphraseus oraingoz oso traketsa da), eta software libreko tresnak bakan dira (OmegaT).

Aipatu da, halaber, itzulpen-unitatetzat esaldia hartzeak zenbait arazo dakartzala, itzultzaileak atzera eta aurrera ibili behar izaten baitu

paragrafoa biribiltzeko. Zenbait saio izan omen dira Euskal Herrian (Acote, Ametra), itzulpen-corpusak erabiliz muga hori gainditzeko, baina ez da emaitzarik merkaturatu edo zabaldu.

Beste hutsune nabarmen bat bada: bi hizkuntzatan oinarritzen direla memoriak, eta, hala, ezin landu daitezke batera itzulgaia, beste hizkuntza batzuetara egindako itzulpenak eta norberaren itzulpena (ikus Langintza Xeheki saileko «[Gauko gezurrak: Itzulpena lantegi](#)» artikulua).

5. Besterik?

Corpusak

6. Zer corpus erabiltzen duzu lanean?

Aditu gehienek aipatuak dira: Klasikoen gordailua, Ereduzko Prosa Gaur, Zientzia eta Teknologiaren Corpusa, CorpEus, Eroskiren corpusa. Badira, ordea, erabilera espezifikokoak. Literatura-itzultzaileak, esaterako, beste hauek ere ahomentatzen ditu: Euskarari ekarriak, Ereduzko Prosa Dinamikoa, ZIO corpusa. Administrazioako terminologoak, berriz, beste baliabide batzuetara jotzen du usuen: IDABA (Eusko Jaurlaritzaren datu-base dokumentala, hango langileek bakarrik eskuragarri dutena) eta aldizkari ofizialen datu-baseak.

7. Nola aldatu du corpusak eskura izateak lan egiteko modua?

Terminologia kontsultatzeko eta bateratzeko tresna ezin hobekak dira, baina corpusek badute hiztegiek ments duten ezaugarri bat: testuaren ikuspegia ematen dute, eta horrek segurtasuna eta inspirazioa ematen dizkie itzultzaileei.

8. Nolako eragina du corpusen sakabanaketak (EPG, ZTC, Klasikoak...)?

Honetan ez datoz bat iritzi-emaile guztiak, batzuentzat dibertsitate hori aberasgarri baita. Hala ere, gehienek aburuz corpus guztiak interfaze beraren barruan integratuta denbora asko aurreztuko litzateke.

Hala ere, badira arazo horri konponbidea aurkitu dionik ere, Foxtror Pro (mac) eta AskSam (Windows) tresnak erabiliz corpusetako zenbait eduki jaitzita norberaren ordenagailuan, saretik kanpo ere erabiltzeko moduan, beraz.

9. Zer atarramentu atera lekieke corpusei orain artekoaz gainera?

Batzuen irudiko, nahikoa dugu dugunarekin, ez baikara terminologo edo ilustratzaile... Hala ere, badirudi testu osoak jaisteko aukera falta dutela

corpus gehienek, memoriak horietaz hornitzeko, baina aterabide zaila du horrek, egiletza-eskubideak gorde behar baitira.

10.Zer deritzozue corpus eleanitzen gabeziari? Nola bete liteke?

Izan, badira batzuk: Eroskiren corpora, Europar Batzordeko memoriak, Linguee!. Batzuetan teknologia falta nabaria da, nahiz sarean baden emaitza onak ematen dituen tresna bat: MULCOR. Haatik, oraindik zer ikertu asko dago arlo horretan, besteak beste itzulpen-memoriez corpusak sortzeko tresnak garatzeko (Acote eta Ametra prototipoak)

11.Besterik?

Konpontzen, ustez, erraz diren bi hutsune bete behar lirateke: batetik, lege-corpus bat sortzea (legedia argitaratzeko prozesuaren barruan sarturik corpora elikatzea), eta, bestetik, eu-fr corpusak egotea, batez ere Iparraldeko itzultzaileak gogoan.

Itzulpen automatikoa

12.Badakizue zer proiektu dauden martxan?

Opentrad da ezagunena, baina oraindik bide luzea du egiteko. Eusko Jaurlaritza ere zerbaitetan dabil, baina oraindik ez dago egitasmo horri buruzko xehetasun handirik.

13.Zer iritzi duzue Google-n tresnaz? Eraginkorrak al dira estatistikan oinarrituriko tresna horiek?

Google Translation batez ere hizkuntza arrotzetarako da erabilgarri, alegia, testuko hizkuntza ezagun ez dugunean, gainerakoan ez hainbeste.

Gurean, ordea, badirudi sistema hibridoek ematen dituztela emaitzarik onenak, erregelak eta estatistika (corpus handiak) uztarturik darabiltzatenak.

14.Zer dakizue HPSk itzulpen automatikoaren bidez egin asmo duen entziklopediaz? Zer deritzozue?

Badirudi itzultzaile automatiko pilotu bat (ikus 12. galdera) dutela, duela urtebete eta erdi aurkeztekoa zena, baina oraindik ez dago argi askorik horri buruz. Gisa berean, Eusko Jaurlaritza es/en>eu noranzkodun tresnak sortzen tematu izan da beti, baina eu>es/en noranzkoduna ere behar litzateke; esaterako, euskara hutsezko web-orriak erdaratzeko.

Nolanahi ere, entziklopediaren egitasmoa dela eta, nabarmena da postedizio-lan handia egin beharko dela, testuak artezteko eta, aldi berean, itzulpen automatikoko tresna bera, arian-arian, fintzeko. Prentsan agertutakoa baino ez dakite, haatik, iritzi-emaileek: <http://ttiki.com/32661>.

15.Besterik?

Sareko baliabideak

16.Sareko hiztegiei dagokienez, zer hutsune daude? Nola osa liteke Euskalbar tresna?

Aditu gehienen ustean, ez dago hutsune larririk. Zerbait aipatzekotan, Explorrerako Hiztegibar tresna hobetu behar litzateke, eta Euskalbarren oharkabean termino hondarkidunik sartuz gero tresnak berez lema soila bilatzea.

Mintegikide batek ordenagailuan bertan kargatuak ditu hiztegi asko. Windowsen hiru sistema hauek baliatzen ditu: Consultor (berak sortutako sistema), Abbyy Lingvo (hizkuntza-pareka dabil) eta Babylon. Horietaz landa, laster-teklak erabiltzen ditu (Autohotkey) batetik bestera ibiltzeko. Mac-en, aldiz, Consultor, TranslateIt eta mdict tresnez zerbitzatzen da.

17.Zer deritzozue elkartearen webgune nagusiari (eizie.org)? Zer on-gaitz ditu? Zerbait aldatuko al zenukete?

Oro har, egokia iruditu zaie adituei, baina badu zer hobetua: bizia falta du; atal batzuk zaharkiturik daude (Itzulbaitakoak, esaterako, berrituago daude); elkartearen beste tresnek ere (2tzul, Itzulbaita, Basqueliterature, Itzul...) agerian egon behar lukete, eta denen biltoki izan; Intraneteko pasahitza aldatzeko aukera eman behar litzateke.

18.Erabiltzen al dituzue elkarteak sustatutako beste webguneak: itzulbaita.eu eta basqueliterature.com? Noiz behin jotzen duzue Itzulbaita-ko «Antena» atalera?

Ez dira askorik erabiltzen elkartearen beste webguneak, eta askok ez dute «Antena» ezagutzen.

19.Nola baliatu behar lituzke elkarteak sare sozialak?

Oro har, jendearengana iristeko bide ezin hobetzat hartzen dira sare sozialak, eta, denen gaineratik, Twitter nabarmendu da, elkartearen albiste guztiak zabal banatzeko era emango bailuke.

20. Ba al da euskarazko blog interesgarririk? Zer egin lezake elkarteak arlo horretan?

Gehienek ez dute halakorik ezagutzen, eta batzuek aipatu ere dute ez direla horien zale.

Gutxi diren arren, badira baten batzuk: [Xerezaderen Artxiboa](#) (Ana Morales), [Idazkola](#) (Iñigo Roque), [31 eskutik](#) (EIZIEren egitasmoa), [GIFAMI](#) (GFAko Itzulpengintza Mintegia), [Mindegi](#) (Patxi Petrirena).

21. Zer baliabide daude lantalde bereko itzultzaileak sarean elkarlanean aritzeko (wikiak...)?

Oro har, datu-baseak eta itzulpen-memoriak partekatzen dituzte lantaldeek; bada, orobat, Wordfast Server eta karpeta partekatuak erabiltzen dituenik ere. GoogleDocs ere tresna egokia izan daiteke elkarlanean aritzeko.

22. Ba al dakizue nolako emaitzak izan dituen administrazioan telelana sustatzeko egitasmoak (Eusko Jaurlaritza)?

Agintariak oso arrakastatsua izan dela diote. Telelangileak oso pozik omen daude, ez hainbeste bertan gelditu direnetako batzuk, ekarri dizkien enbarazuak, lan gehigarria batzuetan eta konparaziozko bidegabekeriak direla eta. Telelana arrakastatsua izan dadin ahalegin handia egin dute administrazioetik, telelangileei abantaila eta baldintza ezin hobeak eskainiz.

23. Besterik?***Ikus-entzunezkoak eta multimediak*****24. Ba al dakizue azpidazketarako zer tresna erabili ohi diren? Zer deritzozue orain arte euskaraz egindako lanari arlo horretan?**

Iritzi-emaileen ustez, bide hori lehenetsi behar litzateke, eta ez hainbeste bikoizketa. Badirudi oso arlo espezifikoa dela eta horretan diharduenak horixe duela jardun-eremu nagusi. OmegaT eta .srt formatuak erabiltzen omen dira halakoetarako.

Aipatzekoa da badela egiteko horretan musu truk eta auzolanean diharduen boluntario talde bat: <http://azpituduluak.com>. Software libreko tresnak eta beste eskuratu daitezke webgune horretan.

25. Zer iritzi duzue produktu informatikoen euskarazko lokalizazioaz? Nolako jarrera izaten da halako tresnak euskaratzean diseinatzaileen nahiz lan-emaileen aldetik? Zer formatutan lan egin? Nola fakturatu?

Halakoetan, arazo ugari izaten da. Batetik, ezin izaten dira memoriak erabili; bestetik, programatzaileekin batera jardun beharra legoke, lana taxuz egiteko, aplikazio itxiekin emaitza ez baita egundo izaten behar bezain txukuna. Halaber, faktura orduka egin behar litzatekeela proposatu du aditu batek.

26. Ba al dakizue telefono bidezko interpretaziorik egiten den Euskal Herrian (ospitaleetan, polizia-etxeetan...)? Non? Nola?

Itxura batean, Arrasaten bada halako zerbaitetan ari den enpresa bat: <http://www.dualia.es>.

27. Besterik?

Prestakuntza

28. Elkarrekin memoriei buruzko hainbat prestakuntza-saio eskaini ditu. Zer beste gai landu behar lituzke?

Askotariko proposamenak egin dira, zein baino zein jakingarriagoa. Dena dela, nabarmentzekoa da aditu-emaile gehienek norberaren ordenagailua prestatzeari eman diotela garrantzia: norberak ordenagailua tresnatua nola duen azaldu, nor bere hiztegiak sortzeko sistemak erakutsi, arazo zehatzak (formatuak eta beste) nola konpondu esplikatuz, Ubuntu-rako eta Mac-erako bitartekoak eskaini.

29. Elkarrekin batek baino gehiagok on-line ikastaroak antolatzeko eskatu digute. Nola bideratuko zenukete eskakizun hori (moodle...)?

Aditu guztiek aho batez aitortu dute urratu beharreko bidea dela hori.

Eleka, esaterako, hasia da Moodle bidezko ikastaroak eskaintzen, eta EIZIEko kideek % 20ko beherapena dute jardueran horietan.

Orobat, ikastaro luzeak baztertzeko, zenbait bideo presta litezke, tresnak, prozedurak edo konponbideak aise eta labur azaltzeko, eta horietarako sarbidea bakarrik elkarrekin eskaintzeko eman.

30. Besterik?

Hiru hanka izan behar lituzke prestakuntza horrek: a) itzultzaileari ia orojakile izatea eskatzen zaionez, arlo espezifikoari buruzko prestakuntza eman liteke; b) lana hobeto kudeatzeko —alegia, ordenagailua tresnatzeko— saioak eman behar lirateke; c) ekonomia-kudeaketa ez genuke alboratu behar.

Gai orokorrak

31.Zer erronka ditu euskal itzulpengintzak gaur egun teknologia berriei dagokienez?

Alde batetik, nabarmena da baliabideak jendearen esku utzi behar direla, bai memoria-banku publikoak sortuz, bai sarean lan egiteko aukera emanaz, bai itzulpen automatikoa garatzeko corpusak bilduz. Eta jendearen esku utzi, gisa berean, itzultze-lanaren prozesu guztietarako tresnak eskainiz eta horretarako jendea trebatuz.

Hala ere, adituen ustean, itzulpen automatikoa ez da lehentasuna, gaur egun, diru gutxiago erabilita etekin hobeko inbertsioak egin bailitezke: softwareak euskarara egokituz, corpusak sortuz, memoriak hobetuz...

Itzulpen automatikoaren arriskuaz gaztigatu duenik ere izan da. Kataluniako adibidea ere ekar genezake hona: han ez da ia itzulpenik egiten gaztelaniatik katalanera, ezta alderantziz ere, itzulpen automatikoak irabazia baitu eremu hori (gu urrun gaude, tipologiaz oso bestelakoak baitira euskara eta auzo-erdarak).

32.Zer eginkizun hartu behar lituzke EIZIEk bere gain, eginbehar horiei heltzeko?

Adituak pozik daude orain arte egindakoarekin, eta bide horretatik jarraitu beharra dagoela nabarmentzen dute. Itzulu, esaterako, tresna bikaina da, eta prestakuntzan ere ibilian-ibilian aurreratzen ari gara.

Komeniko litzateke arloko premiak identifikatzea (itzultzaileonak), eta teknologiak edukiz betetzea edo sortzeko bideak bilatzea.

33. Besterik?

Azkena

34.Proposamen-iradokizunak.

[Mintegikide batek, galdetegiari erantzun beharrean, proposamen bat aurkeztu du. Hemen duzue horren laburpena.]

Itzulpengintzarako teknologiei buruzko ikertalde iraunkor bat sortzea proposatzen dio elkarteari (bihar-etzi Itzulbaitaren barruan ezin hobeto egokituko litzateke).

Ikertaldeak helburu hauek izango lituzke:

- a) Dokumentazio- eta informazio-zerbitzu bat sortzea.
- b) Euskal itzultzaileen oinarrizko prestakuntza teknologikorako *syllabusa* antolatzea eta horren inguruko prestakuntza ematea.
- c) Norbere konturako itzultzaileentzako laguntzak hitzartzea erakunde publikoekin, haien hornidura teknologikoa berritzen laguntzeko.
- d) Erakunde ofizial eta pribatuei aholkuak eskaintzea.
- e) Era guztietako erakundeekin itzulpengintzarako teknologien inguruko hitzarmenak egitea.
- f) Arloko ekimenetan itzultzaileen iritzi eta interesak aintzat hartzen direla bermatzea.
- g) Elkartekide guztiek memoriak, hiztegiak eta abar batera erabiltzeko zerbitzari bat eratzeko eta mantentzeko lanen ardura hartzea.

Bilbon, 2011ko azaroan